

Txokoko lagunak hitzak

(2009-03-23)

Kaixo Iñaki!

Ustekabeen heldu zitzaigun zure eritasunaren berria. Hunkituta, jota utzi gintuen, zer esanik zure heriotzak. Guztiok ukitu gaitu. Penatuta, atsekabeturik gaude guztiok.

Baina nahiago dugu zu zinen bezalakoxea gogoratzea, zeure naturaltasunarekin, zeure euskaltzaletasunarekin...

Gogoratzen dut Beloradora joan gineneko egun hura: zoragarria izan zen !! Zuk koadrillako ume guztiak, Hamelinek bezalaxe, hartu zenituen eta gora eta behera joan zinen haiekin, zenbat gozatu zenuen zuk!! Eta zenbat gozatu zuten ume guztiek!! Iñaki zer da hori?, Iñaki goraino igoko gara?....

Edota beste egun hura, autobusean gindoazela eta bat-batean mikrofonoa hartu eta txisteak kontatzeari ekin zenion, gero guztiok harritu gintuzun bazkarian koplak kantatzeari heldu zenionean. Bakoitzari geurea bota zenigun... baita igarri ere!

Horrela gogoratu nahi zaitugu zauden lekuan zaudela, alai, natural, lagun.

Barakaldoko txokoko lagunok beti horrela gogoratu nahi zaitugu.

Agur eta ohore Iñaki!!